

AMAREN NAITASUNA



Chakur ille kiskurra, illunbian utzirik,
 Leyo danak ichita, gelako chokuan,
 Bere ama jan billa, sukaldera isilik,
 Zeren lo laja zuen chikiya chestuan,
 Besuetan artuta, lo zeguen lekutik,
 Errez menderaturik, aĩñ ume manchua,
 Farrez saltatutzen zan, pozkidaz choraturik
 Goiko kaleko ume, seta gaistokua,
 Baita eraman ere, mutill infernukuak,
 Bere bizitegira, kolkuan sartuta,
 Nola aurcho chiki bat, iñure maitatuak,
 Eraman lezakian, besuan artuta.

Ala pozaren pozaz, choratu nai zitzayon
 Anchume ariñaren, gisara larrian,
 Eskuakiñ maiteka, gelditzen etzitzayon,
Chiki chiki deituaz, etzanta lurrian.

Shanko churi churiyak, belarriyak lusiak,
 Pocholo pocholua, edo biribilla,
 Begi urdiñ zabalak, borondatez betiak,
 Ziruditenak beti, barkarziyo billa.
 Ur epelian gero, kontu-aundiz garbitzen,
 Orrazez apainduak, lajiaz illiak,
 Ez dute ez, ainbeste jaboi churi gastatzen,
 Astigarragan diran gobarazaliak.
 Katillucho bat zopa, gañez egiterañ,
 Esnetan guri guri, ederki jarririk,
 Chakur ama zaliak, ikusten zuen baño
 Etzuen miliskatu, izan nai zoparik.

Biaramun goizian, ordu lenenguetan
 Lo kuluskatzen zala, antsi ta negarrez,

Non bere lekutikan, saltatu da batetan
 Eta zaunkaz asi da, pozaren indarrez,
 Iskanbillan saltoka, illunetik argira,
 Oso choratu nayan, arkitutzen dezu,
 Korritzen du atera, mutillari begira,
 Esan nayan bezela IDIKI NAZAZU.
 Ziri zarra atian, asiya atzaparka,
 Nola legoi indartsu, koajez betiak,
 Eskalletan chit gozoz eta zaunkaz indarka,
 Erantzuten ziyola, kanpotik bestiak.

Pasiaz chimistaren, su-garrak beziñ bizi,
 Mutillak beriala, onla zuen esan,
 —¡Amada! bai ¡amada! atez kanpokuori
 Eta idikitza, bi saltuan an zan.
 ¡Arrayia! sartu da, dantziaz atzekiya:
 Begiz ichumenian, zerebait esanaz,
 Ikusi zuenian, bere chakur chikiya,
 Laister beregana zan, saltuak emanaz.
 Ala goso lepuan, ozka abiyaturik,
 Luze luze etzanda, chikiya lurrian,
 Miliskatutzen zuen, guztiz atsegindurik,
 Belarri chokuan ta sugur muturrian.
 Baita ama leyala, kontu aundiz etzanda,
 Begira jartzen zayo, berari chikiya,
 Choratu nayan *taka*, bi saltocho emanda,
Chuku chuku artutzen, asi zan titiya;
 Amak arkakusuak, gordiak illepian
 Nola billatzen zizkan, ezliteke esan,
 Ala eztaikit zeñek estima lezakian,
 Amaren naitasuna, zenbateraño dan.

VICTORIANO IRAOLA.

